

IBILALDIAREN DESKRIBAPENA

- 1- Muskiz-eko San Juan parkean kokatutako kioskoan (San Juan elizatik hurbil) bilduko gara. 9:00etan ibilaldia hasiko dugu aipatutako elizarako bidea hartuz.
- 2- Oinezkoen pasabidetik errepidea gurutzatu eta San Juan eliza eta ibaira ematen duten etxeen artean dagoen kalea hartuko dugu errepidera iritsi arte.
- 3-Berriro ere oinezkoen pasabidea igaro eta ezkerretara baratzeetan zehar pasatzen den bidea hartuko dugu.
- 4- Bidexka labur honek hilerrian bukatzen du. Ezkerretara jo eta zubi metaliko bat gurutzatuko dugu.
- 5- Zubia gurutzatu ostean zuzen jarraituko dugu BI-2701 errepidera iritsi arte.
- 6- Semaforoa erabiliz errepidea gurutzatuko dugu eta kontuz ibiliz El Campillo poligonora doan bidea hartuko dugu. Poligonoa ezkerretara utzi eta gora jarraituko dugu Bide Berdearekin (meatzetako trenbidearen antzinako bidea) bat eginez.
- 7- Bidea gure eskuinetik hartu eta 2km ibiliko ditugu Arboledako Peñas Negras interpretazio zentrotik datorren bide laranjaekin topo egin arte.
- 8- Bide honetatik behera eginez El Pobaleko burdinola bisitatuko dugu. Burdinolara iristeko beranduago Enkarterrietako Museora zuzentzeko erabiliko dugun bide gurutze bat baztertu- txabolatxo baten aurrean- eta zubi baten bitartez ibaia zeharkatuko dugu.
- 9- El Pobaleko burdinola eta gero berriz ere zubia zeharkatuz, aurreko bidera itzuliko gara lehen aipatutako bide gurutzera helduz, bertan eskumatara hartuko dugu, ia laua den bide honetatik jarraitu eta 25 minutu beranduago, La Olla burdinola-errotaren aurriekin egingo dugu topo (XVIII.mendea).

10- Ibaiari itsatsita dagoen bidexkatik aurrera eginez, Valdivian burdinola-errotara iritsiko gara (XV. mendea).

11-Zementuzko bide batera helduko gara, Galdameseko San Pedrotik datorren errepidera eramango gaituena . Errepidearekin topatzean gure ezkerretara ikusiko dugun zementuzko bidetik gora egingo dugu, berriz ere Bide Berdera eramango gaituena.

12- Berehala gure eskumatik agertzen den bidea hartu eta Bide Berdean egongo gara. Bide honek Artzentaleseko Traslaviña tren geltokiraino eramango gaitu.

13- Tunel bi zeharkatu ondoren La Aceña izeneko gunera helduko gara, bertan lehenengo otordua izango dugu. Ondoren Bide berdetik aurrera jarraituko dugu, poligonoa pasa eta gero , 50 metro errepidean behera egin eta berriz ere Bide Berdea hartuko dugu gure ezkerretik agertzen den bidexka hartuz.

14- Beheranzko bidea izango dugu **Arenao** auzaraino, errepide gaineko egurrezko zubia zeharkatzean bideak gorantz egingo du . Lehenengo ur partzuergoko eraikin berdearen albotik pasako gara,**El Castaño** (Sopuerta) auzaraino, bertan bigarren otordua egingo dugu eta metro gutxiren ostean ezkerreko bidea hartuko dugu, ireki berri duten egurrezko zubia zeharkatuz “ La Baluga” parkera helduko gara.

Parkea zeharkatu eta errepidera iristean eskuinera joko dugu espaloitik, 100 metrotan bigarren hamaiketako aurkitzen da, La Balugako frontoian.

15- Ondoren eskuinetik jarraituko dugu errepidea zebra bidetik zuzen zeharkatu eta aurrez aurrez agertzen den aldapan gora egingo dugu. Eliza igaro eta gero ezkerretik jarraituz bidea belarrezko bidexka bihurtzen da auzo-bide batera helduz. Ezkerretik gorantz eginez 200 metrotan El Castaño auzotik datorren bide berdearekin topo egingo dugu.

16- Gora segituko dugu eta ezkerrean bi harri handiz mugatuta agertzen den bidetik jarraituko dugu.

17- Bideak beherantz jarraitzen du begetazio ugari babestua, basoberritua izan arren gaztainondo eta haritzen presentziak monotonia kromatikoa apurtzen du edertasun natural bereziko tartea osatuz. Azkenik, tunel txiki bat zeharkatu ostean Alen

(Sopuerta) auzora igotzen den bidea zeharkatuko dugu, zuzen jarraituz . (Alen auzoa bisitatzeak pena merezi du, ikuspegi ederrez inguratua eta meatzal aztarnez betea).

18- Puntu honetatik begetazio ugari tartean aurrera egingo dugu Traslaviña tren geltokiraino, bidean zehar Labarrieta izeneko antzinako tren geltokiarekin topo egingo dugu eta aurreko tunelak baino luzeagoak diren beste bi tunel gurutzatuko ditugu. Traslaviñako tren geltokira iristean, trenbidea gurutzatu gabe, aurrez aurre agertzen den pistan aurrera egingo dugu

19- Gora egiten duten hiru tramuz osatutako pistak Bezi (Sopuerta) auzora eramango gaitu, bertan auzoaren izena hartzen duen baseliza bitxia ikusi daiteke.

20- Auzoa zeharkatu eta zementuzko pistan behera egingo dugu.

21- Hiru kilometro beranduago Enkarterrietako Museora iritsiko gara.

Azkenengo otorduarekin indarrak berreskuratzeko eta gure azkenengo erakusketaz gozatzeko momentua izango da: “Enkarterri 1937. Gerra zibilaren azken hilabeteak Euskadin” .

Ondoren doako autobus zerbitzuak parte hartzaileak berriz ere Muskiz-herrira hurbilduko ditu.

TELEFONO INTERESGARRIAK: (MUSEOKOAK) 94 650 44 88 / 94 610 48 15

(DYA) 94 410 10 10